

## Lurrak irentsi

Agatha ekaitz tropikalaren erauntsien erdian, Guatemalako Hirian zulo hau ireki zen joan den maiatzaren 29ko gauean. 20 metroko diametroa eta 30 metroko sakonera dituen zuloak 3 pisuko arropa-fabrika bat irentsi zuen.

Dirudienez, ekaitzak ekarritako euriteek eragin zuzena izan dute, baina oraindik ez dago argi nola sortu den zuloa. Hondamendien Koordinakunde Nazionalako David Monterroso geofisikariak aurreratu duen gauza bakarra da ez dela faila bat, ez eta seismo baten ondorioa ere.

Harrigarria bada ere, 2007an antzeko zulo bat ireki zen metro gutxi batzuetara. Aritu batzuek diotenez, higadura karstikoa izan liteke arrazoia: lur azpiko korronteek zulatu egiten dute kareharria halakoetan, eta, ondorioz, posible da lur-eremu bat erraz eraistea. Baina errua lur azpiko hoditeriak dituen ihesei botatzen dienik ere bada.



GUATEMALAKO GOBERNUA



